



# Matrikula epea irailaren 2tik 6ra irekita



Osteguna, 2013-09-19

## hitza <sup>Info</sup>

Urola Kostako albisteak

ZUREA DA HITZA

Nabigazioa

# Adineko pertsonen zaintza eta atentzio ikastaroa antolatu du Gipuzkoako DYAk Zarautzen

by Urola Kostako Hitza on 2013/06/03 in BESTELAKOAK, GIZARTEA

Adineko pertsonen zaintza eta atentzio ikastaroa antolatu du Gipuzkoako DYAk Zarautzen. Ekainaren 17tik 21era izango da, eta besteak beste, hautemate sentsorialak zein sexualitatea bezalako gaiak landuko dira, baita sendaketa nola egiten den, etxebizitza seguruaga izan dandin nola molda daitekeen edota larrialdiren baten aurrean nola erantzun. Halaber, mugikortasun arazoak edota sentsorialak dituzten adineko pertsonak istripuak izan ditzaten sahiesteko hainbat oinarrizko ezagutza eskainiko zaizkie bertaratzen direnei. Eskola teorikoak zein praktikoak izango dira, “errazak eta entretengarriak”.

Goizez eskainiko dituzte eskolak, 09:00- 13:00 bitartean, astelehenetik ostiralera, DYako ordezkarietan (Iturribide, 12- 14, behea).

Izena eman nahi dutenek 943-464622 telefono zenbakira deitu beharko dute. 100 euro kostako du, eskuliburua barne. Plazak mugatuak direnez, lehenbailehen deitzeko gomendatu dute.

adinekoak, DYA, ikastaro, zaintza

[← Azpeitiarrek eginiko film laburra](#)

Osasunaren autogestioaren inguruko tailerrak antolatu dituzte larunbaterako, Zarauzko Putzuzulon [▶](#)